**ERABAKIA, UPV/EHUKO GERENTEARENA, 2019-2022KO EPEKO PROZESUEK ERAGINDAKO FUNTZIONARIOEN LAN-POLTSAK ARGITARATZEN DITUENA ETA ERREKLAMAZIOAK EGITEKO EGUTEGIKO 10 EGUNEKO EPEA EMATEN DUENA.**

## AURREKARIAK

Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2022ko urriaren 20ko ebakiaren bidez, 2019ko, 2020ko, 2021eko eta 2022ko lan-eskaintza publikoei dagozkien oinarri orokorrak argitaratzeko agindu zen, administrazioko eta zerbitzuetako funtzionarioak eta lan-kontratudun langileak sartzeko, bai eta funtzionarioen barne-sustapenerako ere. 2022ko abenduaren 22an, UPV/EHUko administrazioko eta zerbitzuetako langileak A, B, C, D eta E taldeetan karrerako funtzionario izateko prozesu arrunta arautu duten oinarri espezifikoak argitaratu ziren.

Hautaketa-prozesu horiek amaituta, beharrezkoa da haietatik eratorritako lan-poltsak eratzea, honako erabaki hauetan aurreikusitakoari jarraikiz: 2022ko ekainaren 30eko Akordio Bateratuta, AZPko lan kontratudunen eta AZPko funtzionarioen negoziazio-mahaiena, 2019, 2020, 2021 eta 2022 LEPetako sarrera prozesuetako deialdiak arautzeko gutxieneko irizpideei buruzkoa; eta Plangintza Batzordearen 2024ko urriaren 18ko Akordioa, funtzionarioen 2019-2022 EPEko prozesuak amaitu ondoren lan-poltsetako langileak antolatzeko irizpideei buruzkoa. Era berean, lan-poltsak argitaratu behar dira, eta epe bat ezarri, interesdunek egoki iritzitako erreklamazioak egin ditzaten.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**Lehenengoa.-** UPV/EHUko gerenteak eskuordetuta dauka erabaki hau emateko eskumena, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko Erabakiaren bidez (gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzeko erabakia, 2021eko otsailaren 12ko EHAA).

**Bigarrena.-** Plangintza Batzordearen 2024ko

**RESOLUCIÓN DE LA GERENTE DE LA UPV/EHU POR LA QUE SE PUBLICAN LAS BOLSAS DE TRABAJO DE PERSONAL FUNCIONARIO AFECTADAS POR LOS PROCESOS DE LA OPE 2019-2022 Y SE HABILITA UN PLAZO DE 10 DIAS NATURALES PARA RECLAMACIONES**

## ANTECEDENTES DE HECHO

Mediante Resolución de 20 de octubre de 2022, de la Rectora Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, se ordenó la publicación de las bases generales, correspondientes a las ofertas de empleo público de 2019, de 2020, de 2021 y de 2022, para el acceso de personal funcionario y laboral de administración y servicios, así como de promoción interna del personal funcionario. El 22 de diciembre de 2022 se publicaron las bases específicas que han regir el proceso ordinario para el ingreso como personal funcionario de carrera en los grupos: A, B, C, D y E del personal de administración y servicios de la UPV/EHU.

Concluidos dichos procesos selectivos, resulta necesario conformar las bolsas de trabajo derivadas de los mismos, atendiendo a lo previsto en el Acuerdo de 30 de junio de 2022, conjunto de las mesas negociadoras del PAS laboral y del PAS funcionario, sobre los criterios mínimos que han de regir las convocatorias de las pruebas selectivas de los procesos de ingreso, de las OPES 2019, 2020, 2021 y 2022, así como en el Acuerdo de la Comisión de Planificación de 18 de octubre de 2024, sobre los criterios para la ordenación del personal integrante de las bolsas de trabajo tras la culminación de los procesos de la OPE 2019-2022 del personal funcionario. Procede, así mismo, publicar las bolsas resultantes y habilitar un plazo para que las personas interesadas puedan hacer las reclamaciones que consideren oportunas.

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

**Primero.-** La Gerente es competente, por delegación, para dictar esta Resolución, en virtud de lo dispuesto en la Resolución de 28 de enero de 2021, de la Rectora de la UPV/EHU, sobre estructura y determinación de las áreas de funcionamiento de su equipo de gobierno y de delegación de competencias (BOPV de 12 de febrero de 2021).

**Segundo.-** El Acuerdo de la Comisión de Planificación de 18 de octubre de 2024, sobre los

urriaren 18ko Akordoiak, funtzionarioen 2019-2022 EPEko prozesuak amaitu ondoren lan-poltsak osatzen dituzten langileak antolatzeko irizpideei buruzkoak, zehazten eta garatzen du 2022ko ekainaren 30eko Akordioan, AZPko lan kontratudunen eta AZPko funtzionarioen negoziazio-mahaiena, 2019, 2020, 2021 eta 2022 LEPetako sarrera prozesuetako deialdiak arautzeko gutxieneko irizpideei buruz aurreikusitakoa, eta honako hau ezartzen du:

**Lehenengoa.-** 2019/20/21/22ko (aurrerantzean, 2022ko EPE) EPEen prozesuek eragindako funtzionarioen lan-poltsak honako irizpide hauen arabera antolatuko dira:

1) Lehenik eta behin, egonkortasuna daukatenak agertuko dira, egun lan poltsan daukaten hurrenkera berean, betiere, kasuan kasuko LEPra aurkeztu badira.

Pertsona hauek EE kodea izango dute: egonkortasuna/estabilidad.

2) Jarraian, lehentasuna daukatenak agertuko dira, deialdiaren data baino lehen lan-poltsa horretako deialdi baten ondorioz zerbitzuak eman dituztenak, eta, betiere, LEPra aurkeztu badira eta azterketa egin eta entregatu badute. Horretarako, eskabideak aurkezteko epearen azken eguna (2023ko urtarrilaren 30a) hartuko da erreferentziatzat. Pertsona hauek kasuan kasuko lan poltsan egun daukaten hurrenkera bera izango dute.

Pertsona hauek LP kodea izango dute: lehentasuna/preferencia

3) Jarraian, 2022ko EPEko prozesuan plazarik gabe gainditu duten langileak agertuko dira. Pertsona hauen hurrenkera zehazteko irizpideak hauek izango dira: prozesuan lortutako puntuak gehi eskala berean egindako lana eskariak aurkezteko azken egunaren biharamunean hasi (2023ko urtarrilaren 31) eta prozedura bukatu den egunera arte: 0,06 puntu lan egindako hilabete osoko. Prozeduraren azken eguntzat hartuko da prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrenda argitaratzen den eguna (2024 uztailaren 8a).

criterios para la ordenación del personal integrante de las bolsas de trabajo tras la culminación de los procesos de la OPE 2019-2022 del personal funcionario, que concreta y desarrolla lo previsto en el Acuerdo de 30 de junio de 2022, conjunto de las mesas negociadoras del PAS laboral y del PAS funcionario, sobre los criterios mínimos que han de regir las convocatorias de las pruebas selectivas de los procesos de ingreso, de las OPES 2019, 2020, 2021 y 2022, establece lo siguiente:

**Primero**.- La ordenación de los integrantes de las bolsas de trabajo de personal funcionario afectadas por los procesos de las OPEs 2019/20/21/22 (en adelante OPE 2022) se llevará a cabo de conformidad con los siguientes criterios:

1) En primer lugar figurarán los estables conforme a su orden actual en bolsas, siempre que se hayan presentado al correspondiente proceso selectivo de OPE.

Este personal se identificará con el código EE: egonkortasuna/estabilidad.

2) A continuación figurarán los preferentes, integrados por las personas pertenecientes a la correspondiente bolsa actual que hayan prestado servicios como consecuencia de un llamamiento de esa bolsa antes de la fecha de la convocatoria, tomando como referencia a tales efectos la del último día del plazo de presentación de solicitudes (30 de enero de 2023), y se hayan presentado al correspondiente proceso de OPE con la realización y entrega del examen. Este personal se ordenará conforme a su actual orden en la bolsa correspondiente.

Este personal se identificará con el código LP: lehentasuna/preferencia

3) A continuación figurará el personal aprobado sin plaza en el correspondiente proceso de la OPE 2022, para cuya ordenación se sumará a la puntuación final obtenida en el proceso la puntuación adicional resultante de computar, a razón de 0,06 puntos por mes completo trabajado, los servicios prestados en la escala concordante entre el día siguiente a la fecha de fin de presentación de solicitudes (31 de enero de 2023) y la fecha de finalización del proceso correspondiente, tomando como referencia a tales efectos la fecha de publicación de la relación

Atal honetan, kasuan kasuko hautaketa prozesuko oposizio fasean gutxien dela 17,5 puntu lortu dutenak baino ez dira sartuko lan poltsan.

Pertsona hauek EO kodea izango dute: eskaintza/oferta

4) Ondoren, egun lan poltsan dauden gainontzekoak, baldin eta 2023ko urtarrilaren 31tik aurrera lan egin badute eta aurreko ataletako batean ere ez badaude. Egun duten hurrenkera erlatiboan jarraituko dute.

Pertsona hauek GP kodea izango dute: gerokoak/posteriores

**Bigarrena.-** Aurreko puntuko 1., 2. eta 4. zenbakietako langileek beren egungo egoera eta lehentasunak gordeko dituzte parte hartzen duten campus bakoitzari dagokion lan-poltsan. 3. zenbakian jasotako LEPetik datozen langileak, aldiz, hasiera batean 3 campusetan lanerako prest egongo dira, horretarako prestatuko den epe espezifikoan egin ahal izango dituzten akotazioak eta lehentasunak alde batera utzi gabe.

**Hirugarrena.-** Lan-poltsa berriak, goian zerrendatutako irizpideen arabera eginak, erabaki honen eranskinean jasotakoak dira. Horiek UPV/EHUren web orrian argitaratu beharko dira (teknikariak, kudeaketakoak eta administrazio eta zerbitzuetakoak/lan-poltsak), gerentziaren ebazpen baten bidez, eta 10 egun naturaleko epea egongo da erreklamazioak aurkezteko, argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita. Epea amaituta, aurkeztutako erreklamazioak Gerentziaren beste erabaki baten bidez ebatziko dira, TEKAZEL Funtzionarioen Plangintza Batzordean aztertu ondoren, eta sortutako lan-poltsak behin betiko bihurtuko dira.

**Laugarrena.-** Behin betiko lan-poltsak argitaratu ondoren, 10 egun naturaleko epea irekiko da UPV/EHUko TEKAZELen lan-poltsetan dauden langileek lan-poltsak eratu eta kudeatzeari eta lan-poltsetako kideak ordenatzeari buruzko 2017ko uztailaren 18ko

definitiva de aprobados (8 de julio de 2024), ambos inclusive.
Sólo pasarán a formar parte de la bolsa por este apartado las personas que obtengan un mínimo de 17,5 puntos en la fase de oposición del correspondiente proceso selectivo.

Este personal se identificará con el código EO: eskaintza/oferta

4) A continuación figurará el resto del personal integrante de la bolsa actual correspondiente que haya prestado servicios a partir del 31 de enero de 2023 y que no se encuentre en ninguno de los apartados anteriores, conforme a su actual orden relativo en bolsas.

Este personal se identificará con el código GP: gerokoak/posteriores

**Segundo**.- El personal de los números 1,2 y 4 del punto anterior conservará su actual situación y preferencias en la bolsa correspondiente para cada uno de los campus de los que forme parte. El personal proveniente de la OPE contenido en el número 3, en cambio, figurará inicialmente como disponible en los 3 campus, sin perjuicio de las acotaciones y preferencias que podrá realizar en el plazo específico que se habilite al efecto.

**Tercero**.- Las nuevas bolsas de trabajo, elaboradas conforme a los criterios arriba relacionados, son las que se recogen en el anexo a este acuerdo. Las mismas deberán ser publicadas en la página web de la UPV/EHU (Personal Técnico, de Gestión y de Administración y Servicios/Bolsas de Trabajo) mediante Resolución de la Gerencia al efecto, habilitándose un plazo de reclamaciones de 10 días naturales a partir del día siguiente al de su publicación. Finalizado el plazo, se resolverán las reclamaciones presentadas mediante nueva resolución de la Gerencia, previo tratamiento de las mismas en la Comisión de Planificación de PTGAS Funcionario, elevándose a definitivas las bolsas resultantes.

**Cuarto**.- Tras la publicación de las bolsas definitivas, se habilitará un plazo de 10 días naturales para que el personal incluido en las bolsas de trabajo de Personal Técnico, de Gestión y de Administración y Servicios de la UPV/EHU pueda ejercer las opciones previstas en el Artículo 8 del Acuerdo de 18 de julio de 2017,

Akordioaren 8. artikuluan aurreikusitako aukerak baliatu ahal izan ditzaten.

Epe hori, oro har, lan-poltsetan dauden langile guztientzat gaituko da, EPEko prozesuen eraginpean egon zein ez.

**Bosgarrena.-** Erabaki honen 1) eta 2) zenbakietan ezarritako egonkor- edo lehentasun-izaerari dagokion hautaketa-prozesua gainditu izana gehitzen bazaio, interesdunari egokituko zaio 8. artikuluko erabilgarritasun-eremua deklaratzea, baldintza baten edo bestearen arabera, dagokion ordena-zenbakiarekin. Baldintza bikoitz hori duten pertsona guztiak lan-poltsetan sartu dira, lehenespenez, langile egonkorrak edo lehentasunezkoak direlako, orain arte zeukaten eremu eta lehentasunekin, baina EPEan gaindituak izatearen arabera sartu ahal izango dira, beren prestasun- eta lehentasun-eremu berria osorik zehazteko aukerarekin, baina kontuan hartuta, kasu horretan, egungo posizioa galduko dutela eta EPEaren blokean dagokien hurrenkera-zenbakian sartuko direla. Aukera hori berariaz adierazi beharko dute interesdunek, akordio honetan aurreikusitako prestasun-eremua zehazteko ezarritako epearen barruan, eta, hala egin ezean, ulertuko da lan-poltsan sartu diren egonkortasun- edo lehentasun-izaerari eusten zaiola. Horretarako, nahikoa izango da mezu elektroniko bat bidaltzea bolsas-pas@ehu.eus helbidera ezarritako epearen barruan, berariaz adierazita lan-poltsan sartzeko nahia EPEa gainditua izateagatik, egonkorra edo lehentasunezkoa izan beharrean.

**Seigarrena.-** Lan-poltsetan karrerako funtzionario edo lan-kontratudun langile finko bihurtzen diren pertsonek plaza lortu duten eskala/kategoriarekin bat datozen lan-poltsetan egoteari utziko diote.

Era berean, ofizioz emango zaie baja lanpostua lortu duten taldearen azpiko taldeetako lan-poltsetan, salbu eta berariaz adierazten badute lan-poltsetan geratu nahi dutela erabaki honen laugarren puntuan ezarritako epe orokorraren barruan.

sobre configuración y gestión de las bolsas de trabajo y ordenación de sus integrantes.

Dicho plazo se habilitará de forma general para todo el personal que forme parte de las bolsas de trabajo, tanto si están afectadas por los procesos de OPE como si no lo están.

**Quinto**.- Cuando a la condición de estable o preferente, establecida en los números 1) y 2) del presente acuerdo, se sumara la de aprobado del correspondiente proceso selectivo, corresponderá a la persona interesada declarar el ámbito de disponibilidad del artículo 8 al que se acoge en función de una u otra condición, con su respectivo número de orden. Todas las personas con esta doble condición han sido incluidas por defecto en las bolsas por su condición de estables o preferentes, con el ámbito y preferencias que tenían hasta la fecha, pero podrán optar por hacerlo en base a su condición de aprobados en la OPE, con la posibilidad de determinar enteramente su nuevo ámbito de disponibilidad y preferencias, pero teniendo en cuenta que, en ese caso, perderán su posición actual y entrarán con en el número de orden que les corresponda dentro del bloque de la OPE. Esta opción deberá manifestarse expresamente por las personas interesadas dentro del plazo habilitado para la determinación del ámbito de disponibilidad previsto en este acuerdo, entendiéndose, de no hacerlo, que se opta por conservar la condición de estable o preferente con la que han sido incluidos en la bolsa. Para ello, bastará con enviar un correo electrónico a la dirección de bolsas-pas@ehu.eus dentro del plazo establecido, indicando expresamente el deseo de pasar a formar parte de la bolsa por la condición de aprobado de la OPE, en lugar de por la de estable o preferente.

**Sexto**.- Las personas integrantes de las bolsas que adquieran la condición de funcionarias de carrera o laborales fijas dejarán de formar parte de las bolsas concordantes con la escala/categoría en la que han obtenido plaza.

Así mismo, serán dadas de baja de oficio de las bolsas de los grupos inferiores al grupo en que hayan obtenido plaza, salvo que expresamente manifiesten su deseo de permanecer en ellas dentro del plazo general habilitado en el punto cuarto de este acuerdo.

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea — NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA / CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL

Horregatik guztiagatik, Gerentzia honek, eman zaizkion ahalmenez baliatuz, hau

**ERABAKI DU:**

**Lehenengoa.-** 2019-2022ko EPEko hautaketa-prozesuek eragindako funtzionarioen lan-poltsak argitaratzea. Lan-poltsak eranskin gisa jasotzen dira.

**Bigarrena.-** Erreklamazioak aurkezteko epea 10 egun naturalekoa izango da, ebazpen hau UPV/EHUren webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera (2024ko urriaren 22tik urriaren 31ra, biak barne).

**Hirugarrena.-** Erabaki honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke UPV/EHUko gerenteari hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean. Kasu bietan ere, epeak zenbatzen hasiko dira erabakia UPV/EHUko webgunean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Leioan, sinadura elektronikoaren egunean.

Por cuanto antecede, esta Gerencia, en virtud de las facultades que le están conferidas,

**RESUELVE:**

**Primero. -** Publicar las bolsas de trabajo de personal funcionario afectadas por los procesos selectivos de la OPE 2019-2022 que se recogen como Anexo.

**Segundo. -** Habilitar un plazo de reclamaciones de 10 días naturales a partir del día siguiente a la publicación de esta resolución en la página web de la UPV/EHU (del 22 de octubre al 31 de octubre de 2024, ambos inclusive).

**Tercero. -** Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante la Gerente de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en la página web de la UPV/EHU o bien recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo, a partir del día siguiente al de su publicación.

En Leioa, a fecha de firma electrónica.

GERENTEA / GERENTE

**Sin./Fdo.:** Juan José Unzilla Galán

Eraldaketa Digitalaren eta Komunikazioaren arloko errektoreordea/Vicerrector de Transformación Digital y Comunicación,

Gerentzia hutsik geratzeagatik, gobernu-taldearen ordezkapen-araubidearen aldaketa partzialaren UPV/EHUko errektorearen, 2023ko urtarrilaren 31ko Ebazpenarekin bat etorrita (2023ko otsailaren 8ko EHAA). Por vacancia de la Gerencia conforme a la Resolución de 31 de enero de 2023, de la Rectora de la UPV/EHU, sobre modificación parcial del régimen de suplencias de su equipo de gobierno (BOPV de 8 de febrero de 2023)

| ERANSKINAK | Or. | ANEXOS |
|---|---|---|
| **ERAGINDAKO LAN-POLTSAK** | **Pág.** | **BOLSAS AFECTADAS** |
| **1. ERANSKINA: A Taldea** | | **ANEXO 1: Grupo A** |
| Gestioko teknikarien eskala - Gestio Orokorra | 1 | Escala Técnica de Gestión - General |
| Gestioko teknikarien eskala - Zuzenbidea | 74 | Escala Técnica de Gestión - Derecho |
| Gestioko teknikarien eskala - Ekonomia | 106 | Escala Técnica de Gestión - Economía |
| Gestioko teknikarien eskala - Medikuntza | 114 | Escala Técnica de Gestión - Medicina |
| Gestioko teknikarien eskala - Kazetaritza/Publizitatea | 115 | Escala Técnica de Gestión - Periodismo/Publicidad |
| Gestioko teknikarien eskala - Psikologia Klinikoa | 118 | Escala Técnica de Gestión - Psicología Clínica |
| **2. ERANSKINA: B Taldea** | | **ANEXO 2: Grupo B** |
| Unibertsitate Gestioaren eskala - Gestio Orokorra | 1 | Escala de Gestión Universitaria - General |
| Unibertsitate Gestioaren eskala - Enpresa Zientziak | 64 | Escala de Gestión Universitaria - Empresariales |
| Unibertsitate Gestioaren eskala - Erizaintza | 70 | Escala de Gestión Universitaria - Enfermería |
| Artxibo, Biblioteka eta Museoetako laguntzaileak | 71 | Ayudantes de Archivos, Bibliotecas y Museos |
| **3. ERANSKINA: C Taldea** | | **ANEXO 3: Grupo C** |
| Administrarien eskala | 1 | Escala Administrativa |
| **4. ERANSKINA: D Taldea** | | **ANEXO 4: Grupo D** |
| Administrari laguntzaileen eskala | 1 | Escala Auxiliar Administrativa |
| **5: ERANSKINA: E Taldea** | | **ANEXO:5: Grupo E** |
| Menpekoen eskala | 1 | Escala Subalterna |